

MattinTrecu (1916-1981)

Laboraria eta bertsularia, Ahetze «*Harrieta*» etxaldean sortua, gehienik «*Mulienean* » bizi izan zen eta bertan zenu.

Bere aitaren aita Lezokoa zuen, Gipuzkoarra, Karlisten bigarren gerlan Lapurdirat etorria burasoekin.

Mattinek, ttipi-ttipitik, familialan berean ikasi zuen bertsularitza. 17 urtetan kantatu zuen lehen aldikoz Sarako plazan. Ez zen gehiago sekulan isildu...

1947an Mari Olandegi Arbonan bizi zen senpertarrarekin ezkondu zen eta, ondotik, aita bilakatu.

Bertsu xapelketak irabazi zituen 1948an Urruñan eta 1952an Saran. 1960tik landa Donostian jokatu ziren Euskal Herriko Bertsu Xapelketetan parte hartu zuen.

Herriz herri kantatzen zuen Fernando Aire “Xalbador” urepeldarrarekin bereziki, alaitasuna ezarriz Euskaldunen gogo-bihotzetan. Ironikoa eta umoretsua baitzen, zinezko irriaren giltza, XX. Mendeko bertsularitzaren aurpegi maitatuenetakoa izan zen MattinTrecu.

Martin Trecu (1916-1981)

Agriculteur et improvisateur de vers chantés en langue basque, Martin Trecu, dit *Mattin*, naquit à « Harrieta » mais vécut et décéda à « Mulienea », les deux maisons étant situées dans la commune d'Ahetze.

Son grand père paternel, originaire de Lezo (province du Gipuzkoa), s'installa à Ahetze lors de la seconde guerre carliste.

Mattin s'initia à l'art de l'improvisation dès son plus jeune âge au sein même de sa famille. À 17 ans, il participa à sa première joute orale à Sare.

En 1947, il épousa Marie Olandegi originaire du village voisin de Saint-Pée-sur-Nivelle et fonda une famille.

Sa popularité allant grandissante, Mattin remporta le titre de champion lors des concours organisés à Urrugne en 1948 et à Sare en 1952. A partir de 1960, il participa aux Championnats de Bertsularis du Pays Basque à Saint-Sébastien. Invité à de nombreuses joutes, il partageait son temps entre l'agriculture et l'improvisation. Mattin était souvent accompagné de son ami *Xalbador* d'Urepel, et ses interventions, pleines d'ironie et d'humour, étaient saluées par un tonnerre d'applaudissements.